

ESP.: 2019/AI/03/107

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### 2019ko apirilaren 1eko ohiko bilera

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATE-UDALBURUA

M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

##### ZINEGOTZIAK

###### Euzko Abertzaleak

IBAN RODRÍGUEZ ETXEBARRIA  
ESTIBALIZ BILBAO LARRONDO  
FCO. JAVIER ATXA ARRIZABALAGA  
XABIER LOSANTOS OMAR  
ARANTXA DIAZ DE JUNGITU TUDANKA  
DIONI ANDRES BLANCO (1)  
IDOIA BLASCO CUEVA  
IKER AGIRRE BARTZENA (2)

###### Esnatu Leioa

RUBEN BELANDIA FRADEJAS  
M<sup>a</sup> DOLORES LOZANO MUÑOZ  
JOSE IGNACIO VICENTE MARTÍNEZ

###### EH-Bildu Leioa:

JOKIN UGARTE EGURROLA  
ARITZ TELLITU ZABALA  
NAIARA GOIRIENA ZILLONIZ (3)

###### Euskal Sozialistak:

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES  
ENARA DIEZ OYARZUN  
ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

###### Leioako Talde Popularrak:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ  
JAZAEL MARTÍNEZ ESTEBAN

##### EZ DA BERTARATU / EZ DA BERTARATU, ARRAZIOA

###### AZALDUTA:

DESIREÉ ORTIZ DE URBINA MARÍN

##### EUSKARA ITZULTZAILEA

MAITANE URIARTE AND.

##### KONTU HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

##### IDAZKARIA

CHIARA CAMARÓN PACHECO AND.

- (1) 7. puntuaren bozketaren ondoren alde egin du, eta 10. puntuan berriaz bertaratu da.
- (2) 19:57an iritsi da, 7. puntuaren bozketaren aurretik.
- (3) 19:08an iritsi da, 2. puntuan.

Leioako Udaletxean bi mila eta hemeretzi minutu bateko arratsaldeko zazpiak eta sei minutuan bildu da elizate honetako Osoko Bilkura, **alkate udalburua M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ andrea delarik**, eta ertzean aipatu diren zinegotziak bertan direla, Udalbatza zuzenbidez eta berez osatzen duten kideen gehiengo legala osatuz, eta bertan izan da **CHIARA CAMARÓN PACHECO** idazkari nagusi andrea, ohiko saioa egite aldera, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aldeztatik alkate udalburu andrearen ekimenez horretarako deitu dena, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Leioako Udaleko Herritarrek Parte Hartzeko eta Udal Araudi Organikoko 22. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki, 182. BAOan argitaratu zena 2013ko irailaren 23an, urte horretako ekainaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiz onartutakoa.

Ordu horretan, lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldiari hasiera eman dio eta, jarraian, ohiko bilkura honen gai zerrendari heldu zaio.

## I.- EBAZPEN ATALA

### 1.- 2019.04.28AN DIPUTATUEN KONGRESU ETA SENATURAKO EGINGO DIREN HAUTESKUNDEETARAKO HAUTESKUNDE MAHAIAETAKO MAHAIBURU ETA MAHAIKIDEAK IZENDATZEA.

OHARTARAZPENA: Onesteko dagoen akta da eta, beraz, bertako akordioak Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduen 206 artikulua ezartzen duena aintzat hartuta ziurtatu dira.

ADVERTENCIA: Acta pendiente de aprobación, por lo que los presentes acuerdos han sido certificados a reserva de lo dispuesto en el artículo 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

Hauteskunde Erregimen Orokorra ezartzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 26. artikulua udalei ematen die Hauteskunde Mahaiak osatzeko eskumena.

Horretarako, aipatutako artikulua ezarritakoaren arabera, zozketa publikoa egin beharko da atal bakoitzean zentsatuta dauden pertsona guztien artean, dagozkien izendapenak egiteko. Zozketa hori deialdiaren ondorengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean egin beharko da. Bada, Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.c) artikulua emandako eskumenak erabiliz, Alkatetza Udalburutzak aparteko osoko bilkuraren deialdia egin du 2019-04-1eko 19:00etarako, udaletxeko batzar-aretoan, eta 2019ko apirilaren 28an egingo diren Diputatuen Kongresu eta Senaturako Hauteskundetarako hauteskunde mahaietako mahaiburu eta mahaikideak izendatzeko zozketa publikoa egitea aztergaien zerrendan dago jasota, baita horien ordezkioak izendatzeko ere; hauteskundeak martxoaren 4ko 129/2019 Errege Dekretu bidez deitu ziren.

Ondorioz, udalerriko 40 hauteskunde mahaietarako zozketak egin beharko dira, 40 barruti eta ataletan banatuta baitago udalerria.

Osoko bilkura honen garapena eta administrazio lanak errazteko asmoz, sistema informatiko baten bidez jardungo da. Funtzio informatiko baten bidez hautesle guztiei esleitu zaizkien zenbakiak ausaz aukeratuko dira; zenbaki horiek bat datoz hautesle eroldako zenbakiekin. Horrela, hauteskunde-mahai bakoitzean kargu horiek beteko dituzten pertsonak izendatuko dira, bai titular gisa, baita ordezkio gisa ere.

Udal idazkariak azaldu duenez, Bilbo zonako Hauteskunde Batzordeak igorritako ebazpenarekin bat etorriz, zozketa EINEK igorritako CONOCE programaren bitartez egin behar da, eta kargu bakoitzeko ordezkioen gehienezko kopurua aukeratu behar da (bederatz); kargu bakoitzeko lehen hiru izendatuei zitazioa igorriko zaie (mahaiburua eta bi mahaikide, gehi bi ordezkio kargu bakoitzean, zozketan lortutako ordenan); gainerako ordezkioak zitazio berriaren zain izango dira, lehenengoei zitazioa ematea ezinezkoa bada. Bidenabar, gogorarazi da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ezarritakoa bete behar dela datu babestuei dagokienez.

Zozketa aipatutako programa informatikoaren bitartez egin da, eta Munalra enpresako teknikari baten kolaborazioa ere izan da arazo informatikoak ebazteko; mahai bakoitzerako emaitzak espedientean jaso dira eta Bilbo zonako Hauteskunde Batzordera igorriko den dokumentuan ere bildu dira.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

## **1.- HONAKO AKTA HAU ONESTEA: 2019.02.28ko OHIKO BILKURA**

Aipatutako saioko akta onartzeke zegoela aipatu zen, eta Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onar zezan. Udal idazkariak aurreko akta idaztean gertatutako akats materialaren berri eman du; zuzenketa aplikatuta bozkatu da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Osoko Bilkurak, bilkurara bertaratutako kide guztiek aho batez hala erabaki baitzuten, aipatutako osoko bilkurako akta onetsi zuen; horri buruzko oharririk ez zen egin.

### 3.- ORDAINSARIEN IGOERA 2019:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2019ko martxoaren 21ean egindako 3. irizpen proposamena Osoko Bilkurari aurkeztu zaio, onartzeko, eta horren ziurtagiria espedientean ageri da, baita Euskararen Erakundea eta Soinu Atadia erakunde autonomoen kontseilu artezkarien proposamenak ere; saio horiek 2019ko apirilaren 1ean egin ziren, eta horien ziurtagiriak ere espedientean daude.

#### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek, Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotziek, EH Bildu Leioa taldeko hiru zinegotziek eta Talde Popularreko bi zinegotziek emandako aldeko hamasei botoren gehiengoz, eta bilkurara bertaratutako Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzien aurkako hiru boto egonda, **ERABAKI HAU HARTU ZUEN**, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2) i). artikuluan jasotako eskumenaz baliatuz:

Abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, zeinaren bitartez onetsi diren ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan (312. BOE, 2018ko abenduaren 27koa) (2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpenak berretsitakoa, Diputatuen Kongresukoa, zeinaren bitartez agindu baitzen Sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartu zituen abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren baliozkotze erabakia argitaratzea, 25. BOE, 2019ko urtarrilaren 29koa), honako hau ezarri zen:

*“Bi. 2019an sektore publikoan lanean ari diren langileen ordainsariak ezingo direla igo modu globalean ebuneko 2,25 baino gehiago, 2018ko abenduaren 31n indarrean zudenekin erkatuta, homogeneousan inguruabarretan erkatutako bi aldiatarako, langileei zein langileen antzinateari dagokionez, eta ondorio horietarako gizarte ekintzako gastuak kontuan hartu gabe, modu globalean ezingo dira inolaz ere ez igo 2019an 2018. urtearekin alderatuta. Ondorio horietarako, ulertzen da gizarte ekintzako kontzeptuko gastuak etekinak, osagarriak edo hobekuntzak direla, desberdinak egindako lanaren kontraprestazioekin erkatuta, horren helburua zenbait beharrezan erantzutea baita, sektore publikoaren zerbitzura dauden aipatutako langileen inguruabar pertsonalen ondoriozkoak.*

*Aurrekoaz gain, Barne Produktu Gordinarenean (BPGd) igoerak prezio iraunkorretara 2018an %2,5 lortu edo gaindituz gero, soldata igoeraren beste %0,25 gehituko litzateke 2019ko uztailearen 1etik ondorioak izanik. Hazkundera aipatutako 2,5ekoa baino baxuagoa bada, igoera modu proportzionalen murriztuko da, aipatutako %2,5 horretan izandako beherakadaren arabera; hala, igoera globalak honako hauek izango dira:*

*BPG 2,1en parekoa: % 2,30.*

*BPG 2,2ren parekoa: % 2,35.*

*BPG 2,3ren parekoa: % 2,40.*

*BPG 2,4ren parekoa: % 2,45*

*Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako eta BPGd gehitzeari dagokionez, kontuan hartuko da Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratutako BPGd-ren aurrerakuntza estimazioa. INEk BPGd-ren aurrerakuntza argitaratu ondoren eta aurretik Jarraipen Batzordeari Enplegu publikoa eta laneko baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko Erabakiaren berri eman ondoren, Ministroen Batzordeak*

*hartutako erabakiaren bitartez onetsiko da, hala badagokio, gehikuntza aplikatzea. Erabaki horren berri emango zaie Autonomia Erkidegoei, Hiri Autonomoei eta Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioari.*

*Horrez gain, soldata masaren beste %0,25eko igoera gehigarria baimendu abalko da, beste neurri batzuen artean, ekoizpena edo eraginkortasuna hobetzeko proiektuak edo planak finantzatzeko, funtzio parekagarrien postuen arteko osagai zehatzak herrikusteko, helburuko osagarriak homologatzeko edo pentsio planetan ekarpenak egiteko. Administrazioetan eta 2018ko ekitaldian aurrekontu superabita daukaten artikuluko honetan definitutako sektore publikoko gainerako erakundeetan igoera gehigarri hori % 0,3ra iritsi daiteke.”*

Txosten hau egin den egunean ez dago aipatutako 3.Bi artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoetan aipatutako igoera aplikazioa onartu duen Ministroen Kontseiluaren erabakirik, baina EINren webgunean argitaratutako datuen arabera, BPGren igoera 2018. urtean %2,5era igo da.

Aipatutako 3. artikulua honako hau ere ezarri zuen:

*“Zazpi. Aurreko ataletan xedatutakoak ez ditu albo batean uzten lanpostuen edukia, programa bakoitzean izendatutako langile kopuruaren aldaketa edo bertan ezarritako helburuen lorpen maila dela-eta ezinbestekoak diren ordainsarien egokitzapen singularrak eta salbuespenezkoak egitea.”*

Kontuan hartu behar da Eusko Legebiltzarrak otsailaren 14ko 2/2019 Legea onartu duela, lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriari eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa (35. EHAA, 2019ko otsailaren 19koa); honako hau ezarri zuen bigarren artikuluan:

*“2. artikulua.- Ordainsarien eta hartzeako pasiboen erregimena*

*1.—2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean % 2,25 gehituko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen zerbitzura dauden eta lan-kontratutakoak ez diren langileen urteko ordainsari osoak, baita lehenakariaren, sailburuen, goi-kargudunen eta berdinetsitakoan, behin-behineko langileen eta Zuzendaritzako langileen ordainsariak ere.”*

Kontuan hartu behar da, bidenabar, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 26ko erabakiaren bidez (EHAA 48. zenbakia, 2019/03/11) lanpostu mailako osagarrien maila bakoitzerako 2019. urterako zenbatekoak ezarri dituela Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1. artikulua xede horietarako ezarritakoa aplikatuz, autonomia erkidegoetako gobernuak nahitaez eta urtero lanpostu bakoitzari dagokion lanpostu mailako osagarria ezarri behar duela ezartzen duena euskal administrazio publikoen funtzionario guztientzat.

Espedientean dauden aurrekariak eta Giza Baliabide eta Kontratazioko ABT abokatuaren proposamena kontuan hartuz, eta udal idazkari eta kontu hartzaileak horri buruz emandako txostena ikusita,

**LEHENA.**- 2019ko ekitaldirako (urtarrilaren 01etik ondorioak izanik) ordainsarrietan %2,25eko igoera orokorra onartzea 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin erkatuta, Udaleko langile funtzionario guztientzat, homogeneotasun terminoetan erkatutako bi aldietarako, bai langileei dagokienez, bai antzinatasunari dagokionez ere, abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren 3.Bi artikuluan jasotako eskumenetan oinarrituz, zeinaren bitartez onartu baitziren ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan (312. BOE,

2018ko abenduaren 27koa), 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpenak berretsitakoa, Diputatuen Kongresukoa, zeinaren bitartez agindu baitzen Sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartu zituen abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren baliozkotze erabakia argitaratzea (25. BOE, 2019ko urtarrilaren 29koa).

Nolanahi ere, Ministroen Kontseiluak ordainsariei %0,25eko igoera gehigarria aplikatzea erabakiz gero, 2019ko uztailearen 1etik aurrera ondorioak izanik, ordainsarien igoera orokor hori %2,50ean kokatuko da data horretatik aurrera.

**BIGARRENA.-** Aurreko paragrafoetan ezarritakoarekin bat etorriz, langile funtzionarioen oinarritzko ordainsariak abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuak zehaztuko ditu, zeinaren bitartez onetsi diren ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan (312. BOE, 2018ko abenduaren 27koa), 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpenak berretsitakoa, Diputatuen Kongresukoa, zeinaren bitartez agindu baitzen Sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartu zituen abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren baliozkotze erabakia argitaratzea (25. BOE, 2019ko urtarrilaren 29koa), horretarako oinarritzat hartuz apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezarritakoa Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen, 93.1 artikuluan.

**HIRUGARRENA.-** Uztailearen 6ko 6/1989 Legearen 79.1 artikuluekin bat etorriz, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, lanpostu mailako osagarrien urteko kopurua, 12 hilabetekoa eta lanpostu bakoitzari dagokiona, Euskadiko autonomia erkidegoko Gobernu Kontseiluaren 2019ko otsailaren 26ko Erabaki bidez zehaztu behar da, (48. EHAA, 2019/03/11), otsailaren 14ko 2/2019 Legearen 2.4 artikuluan gobernu organo horri emandako baimenean oinarrituz, otsailaren 14koa, lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriari eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa.

**LAUGARRENA:** Osagarri espezifikoak eta osagarri pertsonalak eta iragankorrak ere %2,25 igoko dira (ondorioak urtarrilaren 1etik aurrera izanik). Baldin eta Ministroen Kontseiluak erabakiz gero ordainsariak oro har %0,25 gehiago igo behar direla ondorioak 2019ko uztailearen 1etik aurrera izanik, osagarri horien igoera %2,50ean ezarriko da data horretatik aurrera, hori guztia albo batera utzi gabe lanpostuen edukia, programa bakoitzean izendatutako langile kopuruaren aldaketa edo bertan ezarritako helburuen lorpen maila dela eta ezinbestekoak diren ordainsarien egokitzapen singularrak eta salbuespenezkoak egitea.

**BOSGARRENA:** Arduraldi eskusiboko edo partzialeko karguen ordainsariak Udalaren 2002ko martxoaren 4ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez ezarri ziren, oinarri gisa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren Zerbitzuko zuzendari batenak hartuta, beraz, Lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu neurriari eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzko otsailaren 14ko 2/2019 Legearen 2.1 artikuluan ezarritako kopuruetara egokitu beharko dira, xede horretarako Bizkaiko Toki Korporazioetako kideen gehieneko ordainsariak eta bertaratzeak onartzen dituen ekainaren 9ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 81/2015 Foru Dekretuan ezarritako mugak albo batera utzi gabe.

**SEIGARRENA:** Behin-behineko langileen ordainsariak %2,25 igoko dira 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera. Baldin eta Ministroen Kontseiluak erabakiz gero modu orokorrean ordainsariak %0,25 gehiago igo behar direla ondorioak 2019ko uztailearen 1etik aurrera izanik,

osagarri horien igoera %2,50ean ezarriko da data horretatik aurrera, betiere 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin erkatuta, hori guztia albo batera utzi gabe lanpostuen edukia, programa bakoitzean izendatutako langile kopuruaren aldaketa edo bertan ezarritako helburuen lorpen maila dela eta ezinbestekoak diren ordainsarien egokitzapen singularrak eta salbuespenekoak egitea.

**ZAZPIGARRENA:** 2019ko ekitaldirako (ondorioak urtarrilaren 01etik izanik) ordainsarrietan %2,25eko igoera orokorra onartzea 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin erkatuta, Udaleko eta erakunde autonomoetako langile funtzionario guztientzat, homogeneotasun terminoetan erkatutako bi aldietarako, bai langileei dagokienez, bai antzinatasunari dagokienez ere, abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren 3.Bi artikuluan jasotako eskumenetan oinarrituz, zeinaren bitartez onartu baitziren ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan (312. BOE, 2018ko abenduaren 27koa), 2019ko urtarrilaren 22ko Ebazpenak berretsitakoa, Diputatuen Kongresukoa, zeinaren bitartez agindu baitzen Sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartu zituen abenduaren 21eko 24/2018 Lege Errege Dekretuaren baliozkotze erabakia argitaratzea (25. BOE, 2019ko urtarrilaren 29koa). Baldin eta Ministroen Kontseiluak erabakiz gero ordainsariak oro har %0,25 gehiago igo behar direla ondorioak 2019ko uztailearen 1etik aurrera izanik, osagarri horien igoera %2,50ean ezarriko da data horretatik aurrera, hori guztia albo batera utzi gabe lanpostuen edukia, programa bakoitzean izendatutako langile kopuruaren aldaketa edo bertan ezarritako helburuen lorpen maila dela eta ezinbestekoak diren ordainsarien egokitzapen singularrak eta salbuespenekoak egitea.

**ZORTZIGARRENA.-** Gainerako osagarriak zein zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak kasuan kasuko araudien arabera arautuko dira; nolana ere, banakako kopuruak ezingo dira areagotu %2,25 baino gehiago urtarrilaren 1etik aurrera; edonola ere, Ministroen Batzordeak erabakiz gero 2019ko uztailearen 01etik aurrera ordainsariak oro har %0,25 igoko dituela, igoera hori data horretatik aurrera %2,50ekoa izango litzateke.

Halaber, erabaki honetan proposatutakotik kanpo geratuko dira, araudi aplikagarriaren arabera, funtzio publikorako ordainsari igoera orokorra aplikatuz eguneratzea baztertzeko duen araubideari lotutako ordainsari kontzeptuak

**BEDERATZIGARRENA.-** 2019ko ekitaldirako baimentzea (ondorioak urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izanik) udaleko eta erakunde autonomoetako langile guztien ordainsari masan % 0,3ko gehikuntza osagarria, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko planak edo proiektuak ezartzeko, funtzio parekideak dituzten lanpostuen artean osagarri espezifikokoak berrikusteko, lanpostu mailako osagarriak homologatzeko edo pentsio planetan ekarpenak egiteko. Neurri horiek helburu horietarako zehaztu beharko dira eta alkatetzadun buruzak izango du gehikuntza osagarri horren ondorioetarako tresna juridikoa eta/edo neurri zehatzak onesteko eta ezartzeko eskumena. Igoera gehigarri horrek aldizkako ordainsari finkoetan eragina badu, orduan Osoko Bilkurak esku hartu beharko du kopuruak egokitzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak organo horri emandako eskumenak direla bide.

**HAMARGARRENA.-** Euskararen Erakundea eta Soinu Atadia erakunde autonomoetako artezkaritza kontseiluei dagokienez, kasuan kasuko erabakiak berrestea, hala hartzen badira.

**HAMAIKAGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea erakunde autonomoen gobernu organoei, dagozkion legezko ondorioetarako.

#### **4. IRAKASKUNTZA BEREZIAK EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA. UDATXIKI UDALEKUETARAKO TARIFAK JASOTZEA**

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2019ko martxoaren 5ean hartutako 16 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztatzea espedientean jasotzen da.

#### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotziek, Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotziek eta EH Bildu Leioa taldeko hiru zinegotziek emandako aldeko hamalau botoren gehiengoz, eta bilkurara bertaratutako Esnatu Leioa taldeko hiru zinegotzien eta Leioako Talde Popularraren bi zinegotzien bost abstentzio egonda, **ERABAKI HAU HARTU ZUEN**, Tokiko Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2) e) artikuluan jasotako eskumenaz baliatuz:

Ikusi da Udal Zerbitzu Teknikoek emandako txostena, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 26. artikuluan ezarritakoa ikusita; txostenean egiaztatu da tasak zerbitzua partzialki finantzatzen duela eta errendimendua ez dela inolaz ere ez zerbitzuaren kostuaren %100 estaltzera iristen.

**LEHENENGOA:** Irakaskuntza bereziak emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onestea, xehetasun hauekin:

##### **2019ko tarifa UDATXIKI udalekuak**

Udalekuak uztailearen 1etik 31ra, 3 eta 6 urte bitarteko neska-mutilentzat.

Hamabostaldi baterako edo hilabete osorako izena emateko aukera.

Eguerdiko zerbitzua aukerakoa da eta aparteko tasa du, hau da, zerbitzu hori ere aukeratzen duenak bi tasa ordaindu behar izango ditu, bata jardueren zerbitzuarengatik eta bestea eguerdiko zerbitzuarengatik.

Izena emateko hainbat aukera daude: oinarritzko errentari dagokiona, (DSBE jasotzen dutenak) eta UDATXIKIn izena emanda bi ume dituzten familientzako %10eko beherapena dutenena.

##### **Tarifa 2019 Colonias de verano.UDATXIKI**

Colonia de verano entre el 1 y el 31 de Julio para niños/as de 3 a 6 años.

Posibilidad de matrícula para quincena o para mes completo.

El servicio de mediodía es optativo y corresponde a una tasa aparte, es decir, quien opta por este servicio abona dos tasas, una por el servicio de actividades y otra por el servicio de mediodía.

Existen varias modalidades de matrícula, las que corresponden a rentas básicas, (perceptores de RGI) y las que tienen un descuento del 10% para las familias que tienen dos niños inscritos en UDATXIKI.

2019ko tarifak ondoren azaltzen direnak izango dira:

Las tarifas aplicables para el año 2019, son las que se detallan a continuación:

MATRIKULA-MOTA	TARIFA	TIPO DE MATRICULA	TARIFA
Arrunta, hilabete osoa	144€	Ordinaria mes completo	144€
Arunta, hamabostaldi bat	72€	Ordinaria una quincena	72€
Arrunta, bi anai-arreba, hilabete osoa, anai-arreba bakoitzeko	129,60€	Ordinaria dos hermanos/as mes completo, por cada hermano	129,60€
Arrunta, bi anai-arreba, hamabostaldi bat, anai-arreba bakoitzeko	64,80€	Ordinaria dos hermanos/as una quincena, por cada hermano	64,80€
DSBE – hilabete osoa	72€	RGI- mes completo	72€
DSBE – hamabostaldi bat	36€	RGI- quincena	36€
DSBE - bi anai-arreba, hilabete osoa, anai-arreba bakoitzeko	64,80€	RGI- dos hermanos/as mes completo, por cada hermano	64,80€
DSBE – bi anai-arreba, hamabostaldi bat, anai-arreba bakoitzeko	32,40€	RGI- dos hermanos/as una quincena, por cada hermano	32,40€
Eguerdiko zerbitzua: bazkaria eta biaoa, hilabete osoa	70€	Servicio mediodía: comer y siesta mes completo	70€
Eguerdiko zerbitzua: bazkaria eta biaoa, hamabostaldi bat	35€	Servicio mediodía: comida y siesta quincena	35€

**BIGARRENA:** Erabakiaren edukia udalaren iragarki-taulan jendaurrean jartzea, 30 egunez, BAOn eta lurralde historikoan hedapen handiena duten egunkarietako batean alde zuzenetik argitaratzea; epe horretan, interesdunek espedientea berrikusi ahalko dute eta erreklamazioak aurkeztu.

**HIRUGARRENA:** Era berean, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/216 Legearen 50. eta 53 a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, ordenantza fiskalaren proiektua argitaratuko da, gutxienez hasieran onetsi eta berehala, erakundearen webgunearen edo egoitza elektronikoaren bidez.

**LAUGARRENA:** Hala badagokio, erreklamazioak ebatzi egingo dira Osoko Bilkuraren behin betiko onesteko erabakiaren bidez. Kontuan izan behar da behin-behineko akordioa behin betikotzat joko dela automatikoki, baldin eta 30 eguneko epea agortutakoan erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Hori guztia 9/2005 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

**BOSGARRENA:** Aldaketen testu osoa BAOn eta udalaren gardentasun atarian argitaratzea.

## **5.- ONDASUNEN INBENTARIOA ZUZENTZEA 2018/12/31KO DATAREKIN**

Udalaren Osoko Bilkurari eman zitzaion onesteko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2019ko martxoaren 12an hartutako 19 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztagiria espedientean jasotzen da.



## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Proposamena bozkatu da, eta Udalbatzak, aldeko hamaika botorekin, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzianak eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzianak, eta zortzi abstentziorekin, bilkurara bertaratutako Esmatu Leioa taldeko hiru zinegotzianak, EH-Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzianak eta Leioako Talde Popularreko bi zinegotzianak, honako hau **ERABAKI** du:

Ikusi da udal ondasunek 2018/01/1ean izan duten egoera eta urtean zehar epigrafe bakoitzean izandako sarrerak eta irteerak ikusita, baita 2018/12/31ko azken saldoa ere, udalaren ondasunena zein erakunde autonomoen ondasunena eta lurzoruaren udal ondarearena.

Udal zerbitzu teknikoaren txostena ere aztertu da.

**LEHENENGOA:** Inbentarioaren zuzenketa onartzea 2018/12/31n.

**BIGARRENA:** Espedientea Bizkaiko Foru Aldundira bidaltzea, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a)7 a artikuluan xedatutakoaren arabera

## UDALAREN INBENTARIOA

EPIGRAFEA	HASIERAKO SALDOA 2018/01/01	SARRERA	IRTEERAK	AMORTIZATUA	AMAIERAKO SALDOA 2018/12/31
1. Ondasun higiezinak eta bide publikoak	<b>141.552.189,68</b>	<b>2.196.110,14</b>	<b>0,00</b>	<b>-3.064.793,45</b>	<b>140.683.506,37</b>
Lursailak	13.369.587,93	0,00	0,00	0,00	13.369.587,93
Eraikinak	49.891.669,72	0,00	0,00	-942.691,16	48.948.978,56
Higiezin hobekuntzak	15.667.185,68	323.703,16	0,00	-815.334,39	15.175.554,45
Instalazioak	543.295,74	0,00	0,00	-18.818,66	524.477,08
Bide publikoak	62.080.450,61	1.872.406,98	0,00	-1287.949,24	62.664.908,35
2. Eskubide errealak	<b>8.716.157,10</b>	<b>284.066,00</b>	<b>-152.334,78</b>	<b>-335.655,83</b>	<b>8.512.232,49</b>
3. Altzari historiko-artistikoak	<b>1.030.934,01</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>1.030.934,01</b>
4. Higigarrien balioak	<b>0,00</b>		<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
5. Ibilgailuak	<b>236.479,88</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>-38.847,59</b>	<b>197.632,29</b>
6. Aziendak	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
7. Beste ondasun higigarri batzuk	<b>1.553.938,95</b>	<b>242.983,88</b>	<b>-3.816,25</b>	<b>-426.948,15</b>	<b>1.366.158,43</b>
8. Nitxoak eta eskubide errebertigarriak ematea	<b>501.046,45</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>501.046,45</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>153.590.746,07</b>	<b>2.723.160,02</b>	<b>-156.151,03</b>	<b>-3.866.245,02</b>	<b>152.291.510,04</b>

**LURZORUAREN UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN SEPARATA**

EPIGRAFEA	HASIERAKO SALDOA	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATUA	EPIGRAFEA, GUZTIRA
Ondasun higiezinak eta bide publikoak	8.812.107,36	<b>131.365,81</b>	<b>0,00</b>	83.705,63	8.859.767,54
Eskubide errealak	7.147.971,26	<b>104.599,87</b>	<b>152.334,78</b>	61.895,99	7.038.340,36
<b>GUZTIRA</b>	<b>15.960.078,62</b>	<b>235.965,68</b>	<b>152.334,78</b>	<b>145.601,62</b>	<b>15.898.107,90</b>

**UDALAREN INBENTARIOAREN LABURPENEA**

EPIGRAFEAK	ONDARE OROKORRA	LURZORUAREN UDAL ONDAREA	AMAIERAKO SALDOA 2018/12/31
1. Ondasun higiezinak eta bide publikoak	<b>131.823.738,83</b>	<b>8.859.767,54</b>	<b>140.683.506,37</b>
2. Eskubide errealak	<b>1.473.892,13</b>	<b>7.038.340,36</b>	<b>8.512.232,49</b>
3. Altzari historiko-artistikoak	<b>1.030.934,01</b>	<b>0,00</b>	<b>1.030.934,01</b>
4. Higigarrien balioak	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
5. Ibilgailuak	<b>197.632,29</b>	<b>0,00</b>	<b>197.632,29</b>
6. Azienda	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
7. Beste ondasun higigarri batzuk	<b>1.366.158,43</b>	<b>0,00</b>	<b>1.366.158,43</b>
8. Nitxoak eta eskubide errebertigarriak ematea	<b>501.046,45</b>	<b>0,00</b>	<b>501.046,45</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>136.393.402,14</b>	<b>15.898.107,90</b>	<b>152.291.510,04</b>

**ERAKUNDE AUTONOMOEN INBENTARIOA**

**EUSKARAREN ERAKUNDEA**

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA 2018/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATUA	AMAIERAKO SALDOA 2018/12/31
1. Ondasun higiezinak eta bide publikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lursailak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Bide publikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
3. Altzari historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Higigarrien balioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Azienda	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Beste ondasun higigarri batzuk	111.289,12	3.912,59	0,00	16.826,33	98.375,38
8. Nitxoak eta eskubide errebertigarriak ematea	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>111.289,12</b>	<b>3.912,59</b>	<b>0,0</b>	<b>16.826,33</b>	<b>98.375,38</b>

OHARTARAZPENA: Onesteko dagoen akta da eta, beraz, bertako akordioak Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 206 artikulua ezartzen duena aintzat hartuta ziurtatu dira.

ADVERTENCIA: Acta pendiente de aprobación, por lo que los presentes acuerdos han sido certificados a reserva de lo dispuesto en el artículo 206 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales.

SOINU-ATADIA FUNDAZIOA

EPIGRAFEAK	HASIERAKO SALDOA 2018/01/01	SARRERAK	IRTEERAK	AMORTIZATU A	AMAIERAKO SALDOA 2018/12/31
1. Ondasun higiezinak eta bide publikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Lursailak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Eraikinak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Instalazioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Bide publikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
2. Eskubide errealak	17.057,31	0,00	0,00	4.264,32	12.792,99
3. Altzari historiko-artistikoak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4. Higigarrien balioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
5. Ibilgailuak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6. Azienda	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
7. Beste ondasun higigarri batzuk	274.078,03	4.958,02	0,00	38.879,00	240.157,05
8. Nitxoak eta eskubide errebertigarriak ematea	0,00	0,00	0,00		
<b>GUZTIRA</b>	<b>291.135,34</b>	<b>4.958,02</b>	<b>0,00</b>	<b>43.143,32</b>	<b>252.950,04</b>

6.- 2019ko AURREKONTUA BETEARAZTEKO ARAUAK EZARRITAKOAREKIN BAT ETORRIZ INDARREAN DAUDEN KONTRATURIK GABEKO FAKTUREN ERAGOZPENA BERTAN BEHERA UZTEA

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2019ko martxoaren 20an hartutako 23 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztatzea espedientearen jasoan da.

**BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aldeko hamaika botoren gehiengoarekin, bilkurara bertaratutako Euzko Abertzaleak taldeko zortzi zinegotzien eta Euskal Sozialistak taldeko hiru zinegotzien botoekin, kontrako hiru botorekin, bilkurara bertaratutako Eusko Leioa taldeko lau zinegotzienak, eta bost abstentziorekin, EH Bildu Leioa taldeko hiru zinegotzienak eta Leioako Alderdi Popularreko bienak, honako hau **ERABAKI DU**:

Kontuan hartu da 2018ko abenduaren 13ko Osoko Bilkuraren 1. Erabakia, 2019ko Aurrekontu Orokorrari hasierako onespina eman ziona, behin betiko argitaratu zena 2019ko otsailaren 7ko 27. BAOen.

Kontuan hartu da Seigarren Titulua, Aurrekontua Betearazteko Arauaren Gastu Kontrola eta Fiskalizazioa, Udal Aurrekontuaren nahitaezko eranskina, abenduaren 2ko 10/2003 Foru

Arauan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko toki erakundeen aurrekontuarena; hala, Osoko Bilkuren eskumena izango da iraungitako kontratueta onarrituz fakturak onartzeari dagozkion eragozpenak bertan behera uztea. Kasu hauetan kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehen fakturaren eragozpena bertan behera uztea Osoko Bilkuraren esku utziko da, eta egoera berberetan edo antzekoetan gertatuko diren hurrengoak ebaztea Alkatetza/Udalburutzaren esku utziko da. Azken atal horri dagokionez, 2019ko ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, aurrekontua betearazteko arau hau dagoeneko indarrean badago, aztergaien zerrendako puntu gisa jasoko da ordura arte iraungitako kontratuen fakturen eragozpena bertan behera uztea eta ondorengoak Alkatetzaren esku uztea. Inguruabar hori errepikatu egin beharko da udalbatzan aldaketaren bat gertatzen bada, hauteskunde prozesuaren ondoren gertatzen denean bezala.

#### **“18. OINARRIA.- AURRETIKO FISKALIZAZIO MUGATUA**

*Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 30ean egindako batzarrean, udal kontu-hartzaileak proposatuta, abo batez erabaki zuen 10/2003 Foru Aranuaren 71. artikuluan aurreikusitako fiskalizazio mugatuaren ezarpena onestea. Bertan adierazten da gaien aurretiko fiskalizazioa honako alderdiak egiaztatzeke bakarrik egingo dela. Aurrekontua betearazteko honako arau hau 2015eko Udal Aurrekontuaren eranskin modura onetsi zen, eta haren bitartez C atala gehitu zen, gastu-betebeharra daukaten agiriei buruzkoa.*

*Aurretiazko fiskalizazio mugatuaren betebehar hau bedagarria da Leioako Udalaren mende dauden erakunde autonomoei dagokienez: Soinu Atadia eta Euskararen Erakundea.*

#### *Derrigorrez aurretiko fiskalizazio mugatua jasan behar duten edukia*

- A.- Aurrekontuetan krediturik dagoen ala ez, eta proposatzen dena egokia den ala ez hartu nahi den gastuaren edo eginbeharraren izaerarako.*
- B.- Betebeharra edo gastuak eskumena daukan organoak sorrarazitakoak direla.*
- C.- Betebeharra edo gastua eusten duten agoriek beharrezko sinadurak eta baldintzak daukatela. Horren harira, gastuaren betebeharra aitortzeke euskarri den dokumentuak zerbitzua, hornikuntza, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzeke edo oniritzia emateko arduradunaren sinadura jasoko du.*
- D.- Kudeaketaren prozesuan daukaten garrantzia dela eta, Osoko Bilkuran zehazten diren bestelako puntuak.*

Kontu-hartzailetza organoak komenigarritzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahal izango ditu, baina horiek ez dute inolaz ere ondoriorik izango dagozkien espedienteen izapidetzeak eteteko.

Horrez gain, betebehar osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun-planteamendurik aplikatuko.

Udal Kontu-hartzailetzak ahalmena izango du material inbentariaezinen gastuak eta kontratu txikiak aurretiaz hartuko diren ala ez erabakitzeko; era berean, segidako traktuko inguruan erabaki ahal izango du, egintza edo kontratu sortzailearen edo bere aldarazpenen hasierako epealdiko gastuaren kontu hartu ondoren. Nolanahi ere, atal kudeatzailearen ardura izan ahalko da kasuan kasuko aurrekontu partidetan kreditua dagoela egiaztatzea eta alkatetzak-udalburutzak horri dagokionez onartutako jarraibideak ziurtatzea; edonola ere, azken horiek gailenduko dira.

#### *Geroagoko fiskalizazioa*

*10/2003 Foru Aranuaren 71. artikuluko 2. atalak aipatutako aurretiko fiskalizazio mugatua egiteko duten obligazio edo gastuei beste fiskalizazio oso bat egin abal izango zaie ondoren, fiskalizazio hori sorrarazi zuten egintzak, agiriak edo*

*espedienteak ordezkatzzen dituen laginketa baten gainean, laginketa edo auditoriako teknikak erabilita; betiere, kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera diren egiaztatu eta kredituen kudeaketan legezketasuna noraino bete den zehazteko denean. Emaizta barne-kontrolari buruzko urteko txostenean jasoko da. Txostena, abal dela, kasuan kasuko ekitaldiko kontu orokorra onestean aurkeztuko da erakundearen osoko bilkuran.*

#### Eragozpenak eta horien izapidetzea

*Kontu-hartzailetzaren zereginak egin bitartean kontu-hartzailetza organoak aztertutako ekintza, agiri edo espedienteen mami edo itxurarekin ados ez dagoela adierazten badu, idatziz aurkeztu beharko ditu **eragozpen** horiek, erabakia edo ebazpena hartu aurretik, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 70. artikulua araututakoari jarraituz.*

*Zehazki, aurretiazko fiskalizazio mugatuan aintzat hartutako alderdiak aztertean erakunde kontu hartzaileak argudiatzen badu egiaztatu beharreko alderdiak ez direla bete, idatziz jakinarazi beharko dio arlo kudeatzaileari; azken hori eragozpenarekin **ados agertuz gero**, espedientea zuzendu abalko da, edo espedientea izapidetzea bertan behera utzi abalko da.*

Espedientea zuzenduz gero, espedientea berriz ere kontu hartzailetza organo berera bideratuko du.

*Arlo kudeatzailea **ados ez badago**, eragozpen txostena emango du. Kasu horretan, eragozpena gebienez bost eguneko epean eman beharko da, eta eragozpen txostenaren kopia igorri beharko da bai kontu hartzailetza organora, bai gastua onartzeko eskumena duen organora (Alkatetza edo osoko bilkura, izapidetzea nori dagokion kontuan hartuta, eragozpen objektuaren arabera eta bertan behera utzi bada edo ez aintzat hartuz). Hala hurrengo bi egoerak izango ditugu:*

*I- **Osoko bilkuran** ebatzi beharreko eragozpenei dagokienez (“aurretiko fiskalizazio mugatuak derrigorrez jaso behar dituen edukia” epigrafearen A eta B atalak), ebazpenak halaberrez egin beharko du aldagaitaren bat aurrekontuan gastu hori estaltzeko. Hau da, honako bi kasu baretan horrela jokatu beharko litzateke:*

- a) Kreditua nabikoa edo egokia ez delako, edo organoa eskuduna ez delako, sortzen direnean.*
- b) Eragozpenak osoko bilkuran onartu beharreko obligazioei edo gastuei buruzkoak direnean.*

*c) Iraungitako kontratuetan oinarritutako fakturak onartzeari dagokio. Kontratuaren babesetik kanpo jasotako lehen fakturaren eragozpena bertan behera uztea Osoko Bilkuraren esku utziko da, eta egoera berberetan edo antzekoetan gertatutako diren hurrengoak ebatzea Alkatetza/Udalburutzaren esku utziko da. Azken atal horri dagokionez, 2019ko ekitaldian egingo den lehenengo Osoko Bilkuran, aurrekontua beteazteko arau hau dagoeneko indarrean badago, aztergai zerrrendako puntu gisa jasoko da ordura arte iraungitako kontratuen fakturen eragozpena bertan behera uztea eta ondorengoak Alkatetzaren esku uztea. Inguruabar hori errepikatuz egin beharko da udalbatzan aldagaitaren bat gertatzen bada, hauteskunde prozesuaren ondoren gertatzen denean bezala.*

**II.-Alkatetza-udalburutzak** ebatzi beharreko eragozpenen izapideei dagokienez, azken horrek egokitzen jotzen dituen txostenak galdegin ahalko ditu, horien irizpideen arabera ebatzeko. Hori horrela, Kontu Hartzailetzaren oharrek edo eragozpenek etete-eraginik ez badute, ez zaizkie kudeaketa-organoen iritziei gailenduko, ez eta Alkatetza-udalburutzak finantza-babesean eskudun den kontrol-organori eska diezazkiokeen txostenei ere. Kontuan izanik oharrak egiten dituzten Kontu-hartzailetzako txosten guztiak kasuan kasuko dekretuari gehitzen zaizkiola Alkatetzak hori izenpetu aurretik, eta goiburuan aipatzen direla, ondorio egokiak izan ditzan txostena organo eskudunari emateko izapidea egindakotzat jotzen da.

Jarraian jasotako kontratuen iraugitze datak kontuan hartuta, ikusi da kontratuok dagoeneko iraungi egin direla eta, horrenbestez, indarrean dagoen kontratu bati legeak ematen dion babesetik kanpo daudela une honetan.

Horietako batzuen kasuan ez da arloa arautzeko araudiak ezarritakoarekin bat datorren lizitazio prozedurarik izapidetu.

Kontuan hartu behar da enpresek zerbitzuak ematen jarraitzen dutela eta, hortaz, egindako lanek dagokien faktura igortzen dutela. Horren froga da taula honetan jasotako fakturan eta kontzeptuak, espedienteari atxikitakoak.

Oinarritzat hartu da aurkeztutako fakturak ordaintzearen aldeko txostenak egin dituztela arloko arduradunek, zerbitzu horiek egiaz eman direla argudiatuz.

Oinarritzat hartu da ut supra erantsitako zerrendan deskribatutako zerbitzuak eman zituzten enpresek aurkeztutako faktura ordaintzeko proposamenari 2019ko martxoaren 11n eragozpen oharra egin zion udaleko Kontu Hartzaitzak; izan ere, dakarrenez, agortutako kontratuen zerbitzuak jasotzen jarraitzea “ordaintzeko betebeharrak aitortzeko funtsezko betekizun edo izapidetik espedientean ez agertzea” dakar. Hala ere, era berean jakinarazi zen egikaritutako prestazioa ordaintzen ez bada, toki erakundea bidegabeki aberastuko dela.

Kontuan hartu da Sektore publikoan kontratazioa arautzen duen araudiak ezarritako erregulazioa (urriaren 30eko 30/2007 Legea eta azaroaren 8ko 9/2017 Legea), bai eta Bizkaiko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak ezarritakoa ere, eta Aurrekontua Egikaritzeko Arauak, indarrean dagoen 2019. urterako Aurrekontu Orokorren eranskin gisa onartutakoa.

**LEHENENGOA-** Udal Kontu hartzaitzak jarraian jasotako fakturak ordaintzeko proposamenari egindako eragozpena bertan behera uztea, Udal Zerbitzu Teknikoek horretarako prestatutako aldeko txostenarekin bat etorriz (eta/edo kasuan kasuko faktura sinatuz):

**Indarrean dauden kontratuen babesik ez duten kontratuei lotutako fakturen zerrenda \_Martxoa '19**

	Faktura-zki	Zk. eta erregistro data Kontu-hartzaitza	Hornitzailea	Zenbatekoa (BEZik gabe)	Azalpena	IO/Izapidetz ea dagokion arloko arduradunaren txostena
1	19034	941 (2019/2/27)	Global Edukinet S.L. IFK_B95729406	1.500,00 €.	“Leioa udalerriko informazio panel interaktibo eta ez interaktiboen software kudeatzailearen mantentze lanak eta edukiak prestatu eta kudeatzea” kontratuaren babespean egindako zerbitzuak.	BAI

**BIGARRENA-** 1.815,00 euroko (BEZ barne) kopuru osoaren gastua onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Horrenbestez, aipatutako faktura ordaintzea onartzea, 1.500,00 euroko (BEZ gabe) kopuruan.

**LAUGARRENA.-** Hala badagokio, hornitzaile eta kontzeptu berbera duten ondorengo eragozpen kasuak Alkatezak ebatziko ditu, 2019ko Aurrekontua Betearazteko Arauan jasotako eskuordetza dela bide.

**7.- ALDATZEA LEIOAKO UDALAREN ETA BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, KONTAKTURIK GABEKO BARIK TXARTELA ETA BERTAN BILDUTAKO TITULUAK LEIOA UDALERRIAN BIDAARIEN HIRI GARRAIO KOLEKTIBOKO ZERBITZU ERREGULARREAN EZARRI, KUDEATU ETA USTIATZEKO, ETA “HIRI GARRAIO KOLEKTIBOA” JARDUERAK EGIN ETA ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2019ko martxoaren 20an hartutako 24 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztatzea espedientearen jasoan da.

**BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Proposamena bozkatu egin da, eta bertaratutako zinegotzi guztiek aho batez **HONAKO HAU ERABAKI** dute:

2018ko uztailearen 26an egindako bilkuran hartutako 4. Erabakiaren bitartez erabaki zen Leioako Udalaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, *“Kontakturik gabeko Barik txartela eta bertan bildutako tituluak Leioa udalerrian bidaiarien hiri garraio kolektiboko zerbitzu erregularrean ezarri, kudeatu eta ustiatzeko”*.

Ikusi da 2018ko urriaren 25ean egindako bilkuran hartutako 22. Erabakia; horren bitartez erabaki zen *“Bidaiarien hiri-zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala”* onartzea.

Kontuan hartu da udal arkitekto teknikoak 2019ko martxoaren 14ko datarekin emandako txostena, ebazpen honetarako oinarritzat hartu dena.

**LEHENA:** Bizkaiko Garraio Partzuergoari proposamena egitea aldatzeko 7. klausulako 7.1 atalaren bigarren paragrafoan, *“Leioako Udalaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko lankidetzaren hitzarmena, kontakturik gabeko Barik txartela eta bertan bildutako tituluak Leioa udalerrian bidaiarien hiri garraio kolektiboko zerbitzu erregularrean ezarri, kudeatu eta ustiatzeko, 2018ko irailaren 3koa”* hitzarmenean, testu honi jarraiki:

Honako hau dioen lekuan:

*“Saldoa gutxitu egingo da tarifa hori aplikatu zuten bidaiak egiten diren neurrian. Bidaiak egiteko kobratutako tarifak erakunde eskudun bakoitzak edo, hala badagokio, BGPeK ezarritakoak izango dira. Leioako Udalaren kasuan, Creditrans diru titulurako adostutako tarifekin bat egiten du; BGPeK zerga arautzeko ordenantzan jaso ditu. (2. eranskina)*

Honako hau agertu behar da:

*“Saldoa gutxitu egingo da tarifa hori aplikatu zuten bidaiak egiten diren neurrian. Bidaiak egiteko kobratutako tarifak erakunde eskudun bakoitzak edo, hala badagokio, BGPeK ezarritakoak izango dira. Leioako Udalaren kasuan, Creditrans diru titulurako tarifa udal horrek ezarritakoa izango da.”*

**BIGARRENA:** Aipatutako hitzarmeneko aldaketa Bizkaiko Garraio Partzuergoak onartu ondoren, alkate andrea gaituko da sinatze aldera.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau Bizkaiko Garraio Partzuergoari jakinaraztea.

**LAUGARRENA:** *“Bidaiarien hiri-zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskaleko”*  
4. artikuluko aldaketari behin-behineko onarpena ematea, testu honekin bat etorritz:

*4. artikulua.*

*Ordenantza honetan araututako jarduerak egin edo zerbitzuak emateagatiko zerga kuotak honela zehaztu dira:*

*Leioabus hiri garraio kolektiboko zerbitzu publikoak ematea:*

*1. Zerbitzu edo jarduera mota Kuota/€*

*a. Txartela arrunta bidai bakoitzeko ..... 1,00*

*B. Barik txartela ..... \**

*Creditrans arrunta: 0,60 €.*

*Creditrans FN 20: 0,48 €.*

*Creditrans FN 50: 0,30 €.*

*(\* Gainerako tituluak (Gizatrans, Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro (kide ugariako familienak barne) eta BBC tituluak, Bilbao Bizkaia Card turismo txartelean jasotakoa) Bizkaiko Garraio Partzuergoak urtero onartutakora egokituko dira. Hori guztia bat etorritz “Kontakturik gabeko Barik txartela eta bertan bildutako tituluak Leioa udalerrian bidaiarien hiri garraio kolektiboko zerbitzu erregularrean ezarri, kudeatu eta ustiatzeko, 2018ko irailaren 3ko Leioako Udalaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko lankidetzaren hitzarmenean” jasotakoarekin bat etorritz.*

*Zerbitzua doakoa izango da 6 urtetik beherakoentzat.*

*Proposamen teknikoari jarraiki, Alkatezaren ebazpen bidez, zerbitzua gehienek urtean 20 eguneko doakoa dela ezarri abalko da, mugikortasun astean edo ingurumenari, mugikortasun jasagarriari edo interes orokorreko beste edozein gairi lotutako jarduerak edo kanpainetan.*

**BOSGARRENA:** Erabakiaren edukia udalaren iragarki-taulan jendaurrean jartzea, 30 eguneko, BAO eta lurralde historikoan hedapen handiena duten egunkarietako batean alde aurretik argitaratzea; epe horretan, interesdunek espedientea berrikusi ahalko dute eta erreklamazioak aurkeztu.

**SEIGARRENA:** Era berean, eta Euskadiko Toki Erakunde berrizko 2/216 Legearen 50. eta 53 a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, ordenantza fiskalaren proiektua argitaratuko da,



gutxienez hasieran onetsi eta berehala, erakundearen webgunearen edo egoitza elektronikoaren bidez.

**ZAZPIGARRENA:** Hala badagokio, erreklamazioak ebatzi egingo dira Osoko Bilkuraren behin betiko onesteko erabakiaren bidez. Kontuan izan behar da behin-behineko akordioa behin betikotzat joko dela automatikoki, baldin eta 30 eguneko epea agortutakoan erreklamaziorik aurkeztu ez bada. Hori guztia 9/2005 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

**ZORTZIGARRENA:** Aldaketen testu osoa BAO n eta udalaren gardentasun atarian argitaratzea..

## **8.- DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK ETA/EDO HAIEN KOPURUAREN ALDAKETA ONESTEA, KASUAN KASUKO TRANSFERENTZIA ERANSKINAK ETA DIRU-LAGUNTZA ARRUNTAK 2019 ETA DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATUZ.**

Udalaren Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion onesteko Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2019ko martxoaren 20an hartutako 25 zenbakiko irizpenaren proposamena; horren egiaztagiria espedientearen jasoan da.

### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Proposamena irakurri eta bozkatu egin da, eta Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzi guztiek aho batez, honako hau **ERABAKI** dute:

Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Ataleko arduradunak egindako proposamena kontuan hartuta, Cáritas Diocesanas taldearen (IFK: R4800309I) aldeko diru laguntza izenduna esleitzea eta FIDIASen aldeko diru laguntza (IFK: G95628608) areagotzea onartze aldera, 3.000 eta 920 euroko kopurudunak, hurrenez hurren, guztira, azken kasu horretan, 5.920 euroko kopurua eginez.

Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan udalerrinari aitortutako eskumenen esparru materialak eta toki erakundeak sustatzeko administrazio jarduerak gauzatu dira, tartean gizarte zerbitzuak antolatu, planifikatu eta kudeatzeari lotutakoak, diru sarrerak bermatu eta gizarte inklusioko arloa antolatu, programatu eta kudeatzeari lotutakoak eta gizarteratzeko politikak kudeatzeari lotutakoak.

Kontuan hartu da Leioako Udaleko Kultura eta Gazteria Ataleko koordinatzaileak egindako proposamenak WOM kultura elkartearen aldeko diru laguntza izenduna ematea onestea aldera (IFK: G39809223), 20.000 eurokoa.

Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluan udalerrinari aitortutako eskumenen esparru materialak eta toki erakundeak sustatzeko administrazio jarduerak gauzatu dira, tartean kultura eta kultura jarduerak antolatu eta sustatzeari lotutakoak eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzeri lotutakoak, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.

artikuluak jasotakoak, Toki araubidearen oinarriak arautu zituenak, kultura eta kultura ekipamenduak sustatzeari dagokionez.

Kontuan hartu da Cáritas Diocesanas eta WOM kultura elkartearen aldeko diru laguntzak ez zirela aurreikusi izaera izendunarekin 2019ko Aurrekontu Orokorrean, Udaleko Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 13an egindako ezohiko saioan onartutakoa (2018/12/27ko BAO on argitaratu zen hasieran eta behin betiko argitaratu zen 2019ko otsailaren 07an, 27. BAO on).

Kontu hartzailetzaren txostena kontuan hartu da, zeinak ondorioztatu baitzuen bi diru laguntza izendunak eman eta hirugarrena areagotzeko proposamenaren alde egin behar dela, baita 2019ko Aurrekontu Orokorrean, horren transferentzien eranskinean, horrekin batera onartutako diru laguntza arruntetan eta Diru laguntzen Plan Estrategikoa 2017-2020 dokumentuan dagokion aldaketa egitearen alde ere.

Kontuan hartu da aurrekontu aldaketa bi aurrekontu aplikazio berri sortzean datzala, 6 eta 9 ataletako gastuen egoeran, Cáritas Diocesanas eta WOM kultura elkarrekin taldeentzako onartutako diru laguntza izendunak kontuan hartzeko, hurrenez hurren, baita dagoeneko existitzen den 00600/13103/4810201 "Osasuna eta Gizarte Ongizatea; Gizarte Inklusioa; FIDIAS" aurrekontu aplikazioko hasierako kreditua areagotzea ere, guztira 5.920 euroko kopurura arte.

Kontuan hartu da diru laguntzen arloko aldaketak finantzatzeko egindako finantzaketa proposamena, hain zuzen ere %5eko kargua izango duena 20.000 euroko diru laguntza izendunaren kasuan, WOM kultura elkarteko, 00600/23107/4900500 "Immigrazio lankidetzak" aurrekontu aplikazioaren hasierako kredituaren kontura.

Kontuan hartu da arloa arautzen duen araudian ezarritakoa eta, bereziki, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauan ezarritakoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki erakundearen aurrekontuei buruzkoa (abenduaren 15eko BAO), 2019ko Aurrekontua Betearazteko Arauan eta Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean jarritakoa, azaroaren 17koa, eta berau garatzeko araudia, baita Udal Ordenantza eta Plan Estrategikoa ere, Osoko Bilkurak 2017-2020 aldirako onartutakoa, eta kasuan kasuko aldaketak.

**LEHENENGOA:** Bi diru laguntza izendun berri ematea onartzea, hain zuzen ere Cáritas Diocesanas taldeari (IFK:\_R4800309I) 3.000 euroko kopuruduna, eta WOM kultura elkarteari (IFK\_G39809223) zuzendutakoak, 2.000 euroko kopuruan.

**BIGARRENA:** FIDIAS elkartearen aldeko diru laguntza izenduna 920 eurotan areagotzea onartzea (IFK: G95628608 ), 2019ko Aurrekontu Orokorrean aurreikusitakoa, guztira 5.920 euroko kopurura arte.

**HIRUGARRENA:** 2019ko Aurrekontu Orokorreko gastuen egoeran kasuan kasuko aurrekontu aldaketa onartzea, 6\_Osasuna eta Gizarte Ongizatea eta 9\_Kultura unitate organikoetan.

**LAUGARRENA:** Existitzen den diru laguntza areagotu eta diru laguntza izendun berrietarako proposatutako finantzaketa onartzea.

**BOSGARRENA:** 2019ko transferentzia arrunten eranskina aldatzea onartzea.

**SEIGARRENA:** Leioako Udalaren Osoko Bilkurak 2017-2020 aldirako onartutako Diru Laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta ondoren argitaratzea onartzea.

**ZAZPIGARRENA:** Aipatutako Foru Arauaren 17.1. artikuluan azaldutakoaren arabera eta, zehatz-mehatz artikuluko horretako 2. atalean zerrendatutako arrazoiengatik legeztatuta dauden interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, honako tramite hauei jarraituz:

- a) Jendaurrean jarri eta erreklamazioak onartzeko epea: hamabost egun baliodun, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean jarri eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.
- b) Erreklamazioak aurkezteko bulegoa: Leioako Udaleko Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuak eta Gaztelubide.
- c) Erreklamazioa jasotzen duen organoa: Udalbatza

## **9.- 16B1 AREAKO LURZATIKO XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONARTZEA:**

Udalbatzari aurkeztu zaio, onartzeko, 2019ko martxoaren 20ko Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordean emandako 12. Irizpena; egiaztatzea espedientean jasotzen da.

### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak, antolamendu juridikoan ezarritako eskumenak erabiliz eta bereziki Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2. artikuluan ezarritakoa, aho batez, **HONAKO HAU ERABAKI DU:**

“Behin ikusita 2017ko uztailaren 24an eta 9.763 erregistro zenbakiarekin Autohiria Gestión S.L.U.k 16B1 Aldeko partzelari dagokion Xehetasun Azterketa proposamen bat aurkeztu zela. Proposamen horrek Estudio Kak egin du eta Asier Sarria Bilbaok arkitektoak sinatzen duela.

Behin ikusita, Alkatetza-presidentetzak, urtarrilaren 31ko 406/19 Dekretuaren bidez, 16B1 aldeko partzelari dagokion xehetasun azterketaren agiriari hasierako onespena egin zuela.

Behin ikusita 2019ko otsailaren 11n eta 12an, hurrenez hurren, dagokion iragarkia argitaratu zen bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai prentsan baita

“Visto que con fecha de 24 de julio de 2017 y registro de entrada 9.763 Autohiria Gestión S.L.U. presentó propuesta de Estudio de Detalle para la parcela del Área 16B1 redactado Estudio K y firmado por el arquitecto D. Asier Sarria Bilbao

Visto que la Alcaldía Presidencia mediante decreto nº 406/19, de 31 de enero, procedió a la aprobación inicial del Estudio de Detalle de la parcela del Área 16B1

Visto que con fecha 11 y 12 de febrero de 2019 respectivamente, se publicaron los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia, así como en

udal Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Atarian, "Izapidetze fasean dauden hirigintza-espeditentak" atalean ere.

Kontuan izanda Udaleko Idazkari Orokorrak, 2019ko martxoaren 13an egindako ziurtagiria, jendaurreko epean aurkeztutako alegazioak eta jasotako txostenak direla eta

Udal Arkitektoak 2019ko martxoaren 13an egindako txostena kontuan hartuta, non jasotako alegazioei eta txostenei buruz iritziak ematen diren eta akordio hau hartzeko proposamena egiten den.

Kontuan hartuta Alkatetzak 2019ko martxoaren 14an egindako Proposamena, non Hirigintza eta Etxebizitza; Lan eta Zerbitzuak; Mugikortasuna eta Ingurugiro Informazio Batzordeari proposatzen zaion irizpidea eman zezan Xehetasun Azterketaren behin betiko onespena dela eta.

Kontuan hartuta 2019ko martxoaren 20an Hirigintza eta Etxebizitza; Lan eta Zerbitzuak; Mugikortasuna eta Ingurugiro Informazio Batzordeak baiezko irizpidea eman duela Xehetasun Azterketaren behin betiko onespena dela eta.

**LEHENIK.-** 16B1 Aldeko partzelaren Xehetasun Azterketari behin betiko onespena ematea..

**BIGARRENIK.-** Akordioi hau jakinaraztea Autohiria Gestión S.L.U.ri.

**HIRUGARRENIK:** Xehetasun Azterketaren behin betiko testuaren ale bat Erregistroan eta Udal honetako Hirigintza Artxibategian idatzi eta jagon.

**LAUGARRENIK:** Bizkaiko Aldizkari Ofizialean behin betiko onespeneri buruzko ebazpena argitaratzea.

**BOSGARRENIK:** Lurren historiako hedadura gehien duen egunkarietan behin betiko onespeneren akordio hau argitaratzea.

**SEIGARRENIK:** Udal Gardentasun eta Gobernu Irekiaren Atarian dagokion atala eguneratzea, akordio hau kontuan harturik, baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko iragarkia ere.

**ZAZPIGARRENIK.-** Dekretu honen edukiaren berri ematea Ogasun eta Ondare Sailari,

prensa y en el apartado "Expedientes del área de urbanismo en exposición/información pública" del Portal de Transparencia y Gobierno Abierto municipal.

Visto el certificado emitido por la Secretaria General del Ayuntamiento con fecha de 13 de marzo de 2019 en relación con las alegaciones e informes recibidos durante el período de información pública.

Considerando el contenido del informe emitido por el Arquitecto Municipal con fecha de 13 de marzo de 2019, en relación con las alegaciones e informes recibidos, y que sirve de motivación al presente acuerdo.

Considerando el contenido de la Propuesta de Alcaldía de 14 de marzo de 2019, en la que se propone a la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente que emita dictamen relación con la aprobación definitiva del Estudio de Detalle.

Considerando el contenido del dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Urbanismo y Vivienda; Obras y Servicios; Movilidad y Medio Ambiente el 20 de marzo de 2019, en relación con la aprobación definitiva del Estudio de Detalle.

**PRIMERO.-** Aprobar Definitivamente el Estudio de Detalle de de la parcela del Área 16B1.

**SEGUNDO.-** Notificar el presente acuerdo a Autohiria Gestión S.L.U.

**TERCERO:** Anotar y custodiar un ejemplar completo del texto definitivo del Estudio de Detalle en el Registro de Planeamiento municipal.

**CUARTO:** Publicar en el Boletín Oficial de Bizkaia el presente acuerdo de aprobación definitiva.

**QUINTO.-** Publicar en los diarios de mayor difusión en el territorio histórico el presente acuerdo de aprobación definitiva.

**SEXTO.-** Actualizar el apartado correspondiente del Portal de Transparencia y Gobierno Abierto municipal, incluyendo este acuerdo así como el anuncio publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**SEPTIMO.-** Dar cuenta del contenido del presente Decreto al Área de Hacienda y Patrimonio

kontuan har dezan, hirigintza eta lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.1.e) artikuluaen bat etorriz, Autohiria Gestión S.L.U.-k ordaindu behar duela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta prentsan argitaratu behar diren iragarkien kostua.

para que, visto lo señalado en el artículo 147.1.e) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, proceda a repercutir a Autohiria Gestión S.L.U. los gastos derivados de la publicación de los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial de Bizkaia y prensa.

## **II.- OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETA KONTROLATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA**

### **10.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU-BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK, 2019-02-21etik 2019-03-20ra:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.e) artikuluan xedatutakoari erreparatuz, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta Toki Korporazioen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Araudiaren 42. artikulua (azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsia) emandako idazketan, osoko bilkurako espedientean honako hau jasota dago, azter dadin: idazpuruan aipatutako epean Alkateak emandako dekretuen kopia dagokion tokian ondoren artxibatzeke aukera alde batera utzi gabe.

Osoko Bilkura **jakitun** geratu da.

### **11.- PREMIAZKO MOZIOAK**

Zati honetan ez da premiazko moziorik aurkeztu.

### **12º.- GALDE-ESKEAK**

Eta bederatzia eta hamaika minutu direnean, alkate udalburuak saioa bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi agindua eman dio dagokion akta presta dezan, adostutako inguruabarretan onartzen dena, eta neuk, idazkari nagusia naizenez, hala ziurtatzen dut.

O.E.  
ALKATEA,

IDAZKARI NAGUSIA